



SOTOA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

Elgoibarko Udalak sotoaren erabilera arautzeko, honako irizpideak jarri ditu:

- 1.- Elgoibarko Udalari dagokio Kultura Batzordearen bidez instalazio honen erabilera arautzea.
- 2.- Sotoa erabiltzeko, dagokion eskaera orria beteko da. Gaia eta jarduna zeintzuk diren zehaztuko da.
- 3.- Eskatzaileek, baimena lortu ondoren, honako betebeharrak izango dituzte:
 - a.- Udaltzaingoaren bulegoan Kultur Etxeko giltza lortu ahal izateko, Kultur Etxean baimen orria jasotzea. Jarduna bukatzean aipatutako giltza Udaltzaingoaren bulegora itzultzea.
 - b.- Jarduna erabaki bezala egitea: egunak errespetatzea, eta egingo diren gainontzeko jardunak ez oztopatzea.
 - c.- Bertako materialaren, altzarien, e.a.-en, erabileraz arduratzea, eta zeuden moduan uztea.
- 4.- Betebeharrak izango dira ziurtatzeko, beharrezkotzat jotzen dituen baliabideak jar ditzake udalak eta beharrezkoa baderitzo fidantza ere eskatu ahal izango du. Xehetasun hauek guztiak baimena ematean zehaztuko dira, eta baimena izateko, horiek onartzea ezinbestekoa izango da.
- 5.- Lehentasuna izango dute Udalari dagozkion erakundearen bidez (Batzordeak, Bilkura, e.a.) antolatutako ekintzek.
- 6.- Honako ekintza hauek izango dute lehentasuna, sotoa erabiltzeko orduan:
 - a.- Udalak antolatutakoek.
 - b.- Udalarekin elkarlanean aritzen diren elkarteek* antolatutakoek.
 - c.- Elgoibarren aritzen diren beste erakunde batzuek antolatutakoek*.
- 7.- Helburua dirua irabaztea duten ekintzei dagokienez, ordu bakoitzeko, eta ordu zati bakoitzeko **50 euro** ordaindu beharko dira.
- 8.- Goian aipatutako baldintzak direla eta, aurreikusi ez diren arazoak, Udalak konponduko ditu Kultura Sailaren bidez.

Honetaz gain, baldintza horiek interpretatzean zalantzaren bat sortuko balitz, Udalaren lana izango da zalantza horiek argitzea.

* **Elkarte eta Entitate hauek, Eusko Jaurlaritzako Elkarten erroldan inskribaturik egon beharko dira.**